


noaia


**Zirimarak bi hezitzaile
behar ditu**

**Euskara ikastea
apustu segurua da**

**Baxurde Krossan
izena emateko epea
zabalik da**



“Fantasiazko generoan sentitzen naiz erosoan”



TAILANDIA



943 373 613

BIDAIAK
TALDEAN

IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIAK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

Ingeleseko klaseak haur eta helduentzat

Maila guztiak

Aurten antzerki-club LH2tik aurrera!

High level "use your English" **Berrial**

Elkarrizketa klaseak (helduak)

Matrikulatzea dohainik

Bertako irakasleak

Azterketen prestakuntza,

First

Advanced

Proficiency


tobyngana
english SCHOOL



Gozatu eta ikasi

Eman izena lehen bait lehen, Irailak 10ean hasten gara!

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Albisteak iruditan

Euskaraldian esku hartzeko garaia

Sare sozialetan nahiz whatsapp bidez, zuetako batek baino gehiagok izango zuen uda honetan, Eli eta Patxiren abenturen berri. Datorkigun Euskaraldia girotzen aritu zaizkigu. Gure hizkuntzaren erabilera areagotzeko azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri mailan ospatuko den ekimenean esku hartzen hasteko garaia da. Antolaketa lanekin segitzeko batzar irekia deitu du talde eragileak irailaren 6rako. Eta bi aste barrene, ahobizi nahiz belarriprest guztientzako izen ematea zabalduko da. Adi beraz datozen deialdiei:

Irailak 6, osteguna

18:00 Euskaraldia prestatzeko batzar irekia Potxoenean.

Irailak 19, asteazkena

19:00 Solasaldia Olatz Altuna eta Inaxio Usarralde herritarrekin Sutegin: "Euskaraldia: zergatik eta zertarako?". Antolatzailea: NOAUA! K.E.



Euskaraldia udal barruan sustatzeko erakunde adierazpena onartu zuten uztailaren 24ko osoko bilkuran, ahobatez onartu ere.

Irailak 20, osteguna

Euskaraldian izen-emate epearen irekiera.

Azaroak 23-abenduak 3

Euskaraldia.

Informazio gehiago:

Facebook: Euskaraldia Usurbil
Twitter: @EuskaraldiaUsur

Antolatzailea: Euskaraldia Usurbil.

Laburrean

Katekesian izena emateko garaia

Salbatore Parrokiak jakinarazi duenez, katekesian izen-emateko egunak hauek izango dira: Irailak 11 eta 12, 18:00-19:30era Parrokia etxean. Gurasoak bertaratzea komeni da.

"Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura"

Izen haxe daraman ekimena aurkeztuko dute ostegunean Potxoenean. Ekimen honen testuinguruan, iraileko bigarren hamabostaldian ospatuko den 6. Sagastiak Loretan zikloa antolatu da.

Udajolaseko argazkiak, eskuragarri

Irudi bilduma jaso nahi duzuenok, eskaria irailaren 10etik 14ra egin beharko duzue NOAUA!n. Bestalde, Udajolasen arroparik galdu duenak NOAUA!n galde dezala. Galdutako arropa dezente dugu.

noaUA

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaUA.eus // www.noaUA.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal Herrerria



Imanol Ubeda

Oporretako burutazioak

Oloko aireportutik hiri erdigunera joateko, gutxienez bi autobus zerbitzu daude. Batek autobidetik osatzen du ibilbidearen zatirik handiena. Besteak distantzia luzeagoa egiten du; herrietatik eta hiriko auzo ezberdinetatik igarotzen delako. Azken honek periferia ezagutzeko aukera eskaintzen du. Eta merkeagoa da, noski. Huraxe aukeratu genuen. Bidean abiatu eta galsoroen ugaritasunak harritu gintuen. Hori-horia zen errepide bazterreko paisaia. Etxeak isolatu samar daude baina ondo komunikatuta daudela ematen du. Konturatu orduko, hiriaren bihotzean ginen. Naturan txertatuta dagoen herrialdea da Norvegia, hiriburua barne.

Guk aukeratu genuen autobusak geldialdi ugari egin behar izaten ditu. Dena den, inor ez badago bus geltoki batean zain eta autobus barrutik inork ez badu bertan gelditzeko botoia sakatu, gidaria ez da gelditzen. Bere martxa jarraitzen du, hurrengo geltokiraino.

Aireportutik lagun gutxi abiatu ginen baina ordube-

teko bidaian jende ugari ibili zen gora eta behera. Lanetik bueltan zetozen beharginak, gazteak, erosketak egin berri zituzten adinduak, familiak... Oslorako bidean, leihotik paraje ezezagun haiei adi, laneko gauzeekin katramilatu zitzaidan gogo. Oporretan murgildu berri, ezin egunerokotik ihes egin. Hau da marka. *Han izanik hona naiz*, poetak esango lukeen moduan.

Bi aste lehenago irakurri nuen elkarrizketa batek izan zuen errua. Ospitaleetara doan bus zerbitzuak jada ez du Usurbilekin lotura zuzenik izango. Foru Aldundiko Mugikortasun Sailak hala erabakita. Uztailaren 15ean, Marisol Garmendia Gipuzkoako Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatua elkarrizketatu zuten El Diario Vasco egunkarian. Bus zerbitzuekin eta bereziki Buruntzaldean azken boladan sortu den zalapartaren aurrean, autokritika egiten zuen: aurreproiektua lantzen hasi zirenean komunikazioa hobea izan zitekeela onartu zuen. "Hortik aurrera, harreman zuzena izan dugu alkateekin" (sic).

Gaizka Lasa kazetariak zerbitzuen murrizketaz galde egin

eta haxe agintariaren erantzuna: "linea bati dagokion aldaketa bakarra hau izango da. Usurbilek ez du Ospitaleetarako zerbitzu zuzenik izango. (Erabiltzaileak) Lasarte-Oriara joan beharko du, handik Ospitaleetarako trasbordoa egin dezan". Bitxia iruditzen zitzaidan hitz jokoa. Kazetariak murrizketaz galde egin eta politikoak aldaketa hitza hautatu zuen. Tira. Linea "aldatzeko" erabakia justifikatzeko, argudio hau erabili zuen Garmendia andereak: "eguneko 23 zerbitzu egiten ziren eta Usurbilen linea hau 19 pertsonen erabiltzen zuten egunero".

Aurrerantzean, ez 19k, ez 42k. Aurrerantzean inork ez du autobus hori hartzeko aukera izango. Zerbitzua kentzea erabaki dutelako. Eta ez edozein. Ospitaleetara doan autobus linea. Horrek esan nahi duen guztiarekin.

Erabakia bera deigarria bada, are deigarriagoa da erabaki horren atzean egon daitekeen logika. Luxua da zerbitzu hori mantentzea, ez da errentagarria. Hori al da irizpidea? Enpresa pribatu bat balitz, ulertuko nuke. Baina zerbitzu publiko batez ari gara. 19 edo

42 izan, usurbildarra edo errenteriarra izan, herritar denek dute zerbitzu egokia jasotzeko eskubidea ala jada ez al da horrela?

Lasarte-Oria eta Usurbil arteko (eta orohar Buruntzaldeko) komunikazioa zeharo aldrebesa da. Autorik gabe bizi den baten egunerokoan, odisea bat izan daiteke. Bidegorri sare egokirik ez, oinezko bide egokirik ez (sikiera Troiako pasabidea egin arte itxaron izan balute). Honetara ezker, hartutako erabakiak gehiagorako ere ematen du. Autoaren erabilera murriztu eta garraio publikoa erabiltzearen aldeko argudioa hutsaren hurrengo al da jada? Eta argudio horrek indarririk badu oraindik, zein da orduan bidaltzen den seinalea? Herri txiki batean bizitzea desabantaila galanta da, zoaz hiriguneetara bizitzera?

Google-n sartu naiz eta *aurrekontua / 2018 / Gipuzkoako Foru Aldundia* hitzak idatzi ditut bilatzailean: aurtengo aurrekontua 856,5 milioi eurokoa da. 856,5 milioi euro. Zenbaki horiek eskuetan, Usurbil eta Ospitaleetako autobus zerbitzuari ezin al zaio eutsi? Benetan?

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Luis Aranalde | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luken Arkarazo

Komikia




TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Zirimarak bi hezitzaile behar ditu

Urritik aurrera, Usurbilgo Udalak, Udarregi Ikastolak eta NOAA! K.E.-k sustaturiko eskola-kiroleko proiektu eraberrituan jardungo duten bi hezitzaile behar dira.

Gogoan izan, ekainean aurkeztu zieten egitasmoa hiru eragileok erabiltzaileak izango diren LH 1-4 maila arteko ikasleen gurasoei. Proposamen berriak "inklusiboagoa, ziurgabeagoa, anitzagoa, zabalaagoa, koherenteagoa" izan nahi duela zioten. Orain arte eremu honetan zegoen hutsune bat betetzera dator. Aisia barnebilduko duen eskaintza dugu honakoa. Kanean landu nahi dena, sormena bultzatuz, ikaslea bera eta bere beharrak jarri nahi ditu erdigunean, gurasoen eskuhartze aktiboa sustatzea erekin batera.



Ekainean aurkeztu zitzaizen egitasmoa LH 1-4 maila arteko ikasleen gurasoei.

BI HEZITZAILE BEHAR DIRA

"Lan-hitzarmenak urriaren 1etik ekainaren 15era bitarte iraungo du. Astean 7 ordukoa izango da lanaldia"

Honatz iragarri dizuegun lan deialdiaren xehetasunak:

■ Bete beharreko lanpostu kopurua: 2.

■ Lanaldia: urriaren 1etik ekainaren 15era, astean 7 ordu.

■ Bete beharreko baldintzak: -Aisialdiko zuzendari edo begirale titulua izatea.

-Usurbildarra eta euskalduna izatea.

■ Puntuagarria izango da: -Hezkuntzarekin (jarduera fisi-

koa, aisia) zerikusia duen formazioa izatea.

-Lanpostuarekin lotutako lan-esperientzia izatea; heziketa fisikoan, hezkuntzan, Eskola Kirolean...

-Lanpostuarekin lotutako bestelako jarduerak egin izana: bolondres jardun izana gorputz adierazpen jardueretan, aisialdi ekimenetan, kanean nahiz naturan eginiko joko-jolasetan...

■ Langileen hautaketa prozesua:

-Irailaren 17ra arte: kurrikulum bilketa eskolakirola@udarregi.eus helbidean edo Udarregi Ikastolako idazkaritzan.

-Irailak 19: jasotako kurrikulumetatik bost hautatu eta 17:00etan hautagaiei elkarrizketak. Hor hautatuko dira bi hautagaiak.

-Irailak 21: epaimahaiaren ebazpena ezagutzera emango da.

Aginagako Arrate tabernak kudeatzailea behar du

Usurbilgo Udalak uda hasieran, Aginagako Arrate jubilatutako elkarteko tabernaren kudeaketa zerbitzua esleitzeko eginiko deialdiaren baitan, eskabi-deak aurkezteko egokituriko tartean ez zen inor aurkeztu. Honenbestez, Arrate tabernak kudeatzaile baten beharra izaten segitzen du. Uztaila hasietatik itxita dago, azken aldian,

aginagarren bilgune bakarretarikoa zena.

Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, esleipena hutsik geratu den arren, "udal-gobernuak lanean jarraitzen du zerbitzua eman ahal izateko, eta inork interesik izango balu, udaletxera hurbil daiteke informazio eske".

Honatz esleipen deialdi honi

buruzko xehetasun gehiago:

■ Eskaini beharreko zerbitzuak: taberna kudeatzea, taberna-jantokiaren mantenu, ustiapen eta garbiketa; komun eta tabernatik beherako eskilara eta beheko sarreraren garbiketa; zahar egoitzako gela atezaintza-lanak.

■ Kontratuaren iraupena: urtebetekoa, 4 urte betera arte

luzagarria.

■ Prezioa: 25 euro, gutxieneko hileroko kuota (+ %21eko BEZ-a, guztira 30,25 euro).

■ Betebeharreko gehiago: B2 hizkuntza gaitasun maila egiaztatzea; elikagaien manipulatzailer titulua izatea. Informazio gehiago, usurbil.eus atarian ("Kontratatzaileraren profila" atalean).

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Zerbitzu hainbat, ohiko ordutegira bueltan

Udako hilabeteen ostean, egunerokotasunera itzultzeko ordua da. Hainbat zerbitzu ere itzuli dira edo bueltatzear dira ohiko ordutegira:

Sutegi udal liburutegia

Irailaren 7ra arte astelehenetik ostiralera 09:30-14:00 artean zabalik. Irailaren 10etik aurrera ohiko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00/16:00-19:30. Irailean larunbatetan itxita, urritik aurrera zabalik.



Irailaren 10etik aurrera ohiko ordutegian arituko dira Sutegiko udal liburutegian. Argazkia: Sutegi.

Oiardo Kiroldegia

■ Lan egunetan: 7:00-12:30/14:30-22:00 (igerilekua-
ren itxiera: 12:15/21:00).
■ Larunbatetan: 9:00-21:30
(igerilekuaren itxiera: 21:00).
■ Igande eta jai egunetan: 9:00-
13:30 (igerilekuaren itxiera:
13:00).

Garbigunea

■ Irailaren 15era arteko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:15-14:00. Larunbatetan,

09:00-13:30.

■ Irailaren 15etik aurrerako ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:15-13:00/16:00-19:00. Larunbatetan, 09:00-13:00.

KzGunea

■ Irailean goizez zabalik, 09:00-13:00 artean. Informazio gehiago: kzgunea.eus

Bus taxia

■ Irailaren 3az geroztik, ohiko ordutegiarekin martxan da berriz.

Euskotren

■ Irailaren 10etik aurrera neguko ordutegia izango du indarrean. Ordura arte, udakoa. Informazio gehiago: euskotren.eus

Lurraldebus

■ Irailaren 1az geroztik neguko ordutegia indarrean da Lurraldebusen zerbitzuetan. Informazio gehiago: lurraldebus.eus

Dantzan hasteko prest

Orbeldi Dantza Taldea, ikasturte berriaren atarian da. Izen emateko garaia da orain. Honatx hilabeteotarako prestatu duten eskaintza:

Haurrentzako eskaintza:

■ Astean ordubete. Ordutegia izen emandakoen artean zehaztuko da.
■ Prezioa: 65 euro (senideak: bakoitzak 60 euro).
■ Oharra: kuota azaroan ko-bratuko da.

Helduentzako eskaintza:

■ Astean bi ordu. Ikasturtea: 75 euro (senideak: bakoitzak 70 euro).
■ Kuota izen ematean ko-bratuko da.
■ Klaseen ordutegia: Plaza dantzak asteartean, 19:00-21:00. Euskal dantzak (oinarrizko maila) astelehenetan, 19:00-21:00 artean. Euskal dantzak (maila aurre-ratua) ostegunetan, 19:00-21:00 artean.

Dantza garaikideko ikastaroa:

■ Asteazkenetan 18:30-20:30 artean Oiardo Kiroldegiko dantza gelan.
■ Irakaslea: Kukai Dantza Taldeko dantzari Eneko Gil.
■ Kuota: ikasturtea, 75 euro.
■ Oharra: plaza kopuru mugatua.
■ Ikastaroaren hasiera: urriaren 3an.

Izen ematea:

■ E-posta: orbeldi.udt@gmail.com (emailen izen abizenak, taldea eta telefono zenbakia adierazi). Jendaurreko izen ematea:
■ Egunak: Irailak 12, 13, 14.
■ Ordutegia: 17:00-20:00.
■ Tokia: Oiardo Kiroldegiko dantza-gela.
■ Oharra: plaza kopuru mugatua.

“Jasangaitza den egoera baten aurrean gaude”

A buztuaren 30ean elkarretaratzea egin zuten Michelin atarian, Gasteizko lantegian istripuz hil zen lankidearen omenez. “Lasarteko Enpresa Batzordetik gure doluminak eta elkartasuna azaldu nahi dizkiogu Antonio Miguel Parra Márquezen senide eta lagunei”.

Azken bi urteotan lau langile hil dira Michelinen lantegietan. Lasarteko Enpresa Batzordearen esanetan, “jasangaitza den egoera baten aurrean gaude, are gehiago garrantzitsuena



Michelingo langileak, Enpresa Batzordeak abuztuaren 30ean deitutako elkarretaratzean.

segurtasuna dela esaten duen ikusita”. Argazkia: LAB Michelin-Lasarte.

Elkar eta Gureak enpresak, laster Usurbilgo lurretan

Michelinek hutsik duen lantegiaren ondoko lur eremuan kokatuko dira bi lantegion egoitza nagusiak, Urbil merkatalgunearen parean. Etor-kizuneko proiektua gauzatze bidean, urrats garrantzitsua eman zuen udalbatzak uztailaren 24an egin zuen osoko bilkuran. Udala, Gureak eta Elkarren arteko hirigintza hitzarmena hasieraz onartu zuen udalbatzak aho batez.

Hitzarmen honi esker, Michelinek Zapategi eremuan libre utzitako 43.881,09 metro karratuko gunea erosiko dute eta bertan kokatuko dira. Aipatu Zapategi eremua bitan banatuko da etorkizunean. Zati bat Michelinek okupatuko du, bestea Gureak eta Elkarrek.

Onurez josia

Udal gobernu taldetik nabarmendu dutenez, “euskara, kul-



Michelinek Zapategi eremuan libre utzitako 43.881,09 metro karratuko gunea erosiko dute eta bertan kokatuko dira. Irudia: usurbil.eus

tura, gizarte-balioak sustatzen dituen proiektua da” honakoa. Lorpen handitzat eta onuragarritzat jotzen dute, bi lantegiok Usurbila ekartzea. Guztira, 950 lanpostu kokatuko dira Usurbilen eta “ahul dauden sektoreak indartzeko balioko du”. Hainbat langile birkokatuko dira bertan, lanpostu berriak ere sortuko dira. Elkarrek bere jarduera eta biltegia barnebilduko dituen pabilioi bat eraikiko du. Gureak-ek lau eraikiko ditu; “elektronikakoa, marketing-erako,

muntai-lanetarako eta hezkuntza eta zerbitzuetarako”.

Hiriarekiko konexioa bermatzea, lurraren optimizazioa eta erabilera nahasketa, biodibertsitatea eta geografia-balioak mantentzea, mugikortasun jasangarria bultzatzea, egonkortasun soziala bermatzea, hortxe eremu honetan Udalak sustatu nahi izan dituen ezaugarriak, “hirigintza-eta lurralde-antolamenduaren ikuspegi merkantilistak” alboratuta.

Ugartondoko etxebizitzak eraikitzeko baimena

Abuztuaren 20an udal ordezkariak batu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Jau-reguizar SL enpresari babes ofizialeko 46 etxebizitza eta beste 46 etxebizitza tasatu haien trasteleku eta garaiekin eraikitzeko baimena ematea erabaki zuen.

Garabiderekin beste lau urteko lankidetza

Garabide Elkartearekin zuen lankidetza beste lau urtez luzatu du Usurbilgo Udalak, “garapen-bidean dauden herrietan hizkuntza normalizatzeko egitasmoak sustatzen jarraitzeko”. Hitzarmen honen testuinguruan, Udalen 6.000 euroko laguntza jasoko du esperientzien elkartrukean oinarrituriko lankidetza sustatzen duen elkarrekin.

Zumarteko birgaitze lanak, martxan

Ekaineko udalbatzaren osoko bilkuran aho batez, Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko lanak Construcciones Moyua S.L. enpresari esleitu ostean, obra kontratua formalizatu zuen Udalak.

Iragarri moduan, uda honetan bertan hasi dituzte lanak. Urtebeteko epean amaitu beharko dituzte. Honenbestez, 2019-20 ikasturtean erabilgarri behar luke egon, Villa Pilar eraikin berri eta handituak. Bitartean, iaz bezala, ikasturte berri honetan ere, Udarregi Ikastola, Santueneko frontoi ondoko lokala eta Puntapax kaleko egoitza baliatzen segiko du Zumartek.



Uda honetan hasi dituzte lanak. Urtebeteko epean amaitu beharko dituzte.

“Guretzako baba txikia beti izan da altxor bat”

A buztuaren 30ean bildu zen Saizar Sagar-dotegian, baba beltz txikiari gorazarre egiten dion ibilbide luzeko eta urtez urte hazten doan kofradia. Iñaki Almandoz Aranburu herritarra izendatu dute kofrade kide berri gisa aurtengoan. Urteroko erritua bete zuten horretarako. Jada kofradekide direnak aurkeztu, ereserkia abestu ostean, laiarekin bedeinkatu, kapa eta txapela jantzi eta aureskua ere dantzatu zuen Almandozek.

Kofradekide berria pozik eta esker oneko agertu zen. Eskerrak eman nahi izan zizkion, bera hautatzea bururatu zitzaionari, “kofradia kideei ez zitzaielako gaizki iruditu” eta jai egun honen antolatzailerei. “Badira urte batzuk etortzen naizela eta oso ondo pasatzen dut”, zioen Almandozek.



Iñaki Almandoz kofrade berri izendatu zuten.

“Gose piloa kendu du”

Baba beltz txikia goraipatzeko baliatu zuen tarte. Elikagai honek, Almandozen esanetan, “gose piloa kendu du. Gure etxean asko jaten zen. Oraindik jaten jarraitzen dugu baina ez hainbeste egia esan. Guretzako baba txikia beti izan da altxor bat eta hala izaten jarrai dezala”. Baba beltz txikiare-

kiko soilik ez, sorterriarekiko harrotasuna agertu zuen baita Almandozek, kapa beltz eta txapela jantzi zuten gainerako kofrade kideez inguratua zela.

Urtebete barru lagun berri bat batuko da koadrilara. Kofradekide berriaren izena, Saizarko festan aurreratu zuten; bazkaltiarren artean zen Rufino Izagirre.

Udako aisialdi ekimenen topaketa

Harremanen esparruan, elkar ezagutzen eta leuskararen eragiteko estreinakoz topaketa antolatu zuten uztailaren 19an Usurbil, Aginaga, Zubieta eta Lasarteko udako aisialdi ekimenen antolatzailak. Jolas eta ekintza ezberdinen bueltan, egunpasa ederra egin zuten, talde batzuk Zubietan, besteek Usurbilen.



Lehen aldiz ospatu da udako aisialdi taldeen arteko topaketa.

Santueneko jaiak, laugarren asteburuan

Ohi baino astebete beranduago helduko zaizkigu Santueneko jaiak, iraileko laugarren asteburuan. Hilaren 21etik 23ra ospatuko dira. Aginagakoak helduko dira gero. Datak finkatuak dituzte; urriaren 4, 5, 6, 7, 12 eta 13an ospatuko dira San Praixkuak.

Ikastaroak

Ikastaro eskaintza zabalak prestatu du Santuenea Elkarteak. Irailaren 15a baino lehen eman beharko da izena:

■ Yoga eta reiki: 619 791 170 edo 670 027 731.

■ Aeroyoga: 615 715 991 edo 670 027 731.

Ordutegiak:

■ Astelehenetan:

19:10-20:10 Aeroyoga.

20:15-21:15 Aeroyoga.

■ Asteartean:

9:15-10:15 Aeroyoga.

10:20-11:20 Errestauratiboa.

14:40-15:40 Aeroyoga.

16:00-17:30 Yoga.

18:30-20:00 Yoga.

20:30-22:00 Yoga.

■ Asteazkenetan:

19:10-20:10 Aeroyoga.

20:15-21:15 Aeroyoga.

■ Ostegunetan:

9:15-10:15 Aeroyoga.

10:20-11:20 Errestauratiboa.

14:40-15:40 Aeroyoga.

17:00 Reiki.

20:30-22:00 Yoga.



Denboraldi berrirako ikastaroen gida

Irailan murgiltzearekin batera datorkigu denboraldi berrirako ikastaroen loraldia. Eskaintza zabala duzue aurtengoan ere. Gustukoena hautatu eta izen emateko garaia da.

Oiardo Kiroldegia

2018-19 denboraldirako ikastaro eskaintza prest du Oiardo Kiroldegiak. Igerileku txikia handitu eta irisgarri izateko egin beharreko lanak tarteko, uretako ikastaroak martxoa aldera jarriko dira martxan. Gainerakoak ohi bezala, ikasturte hasiera honetan; spinning, pilates, zumba, jumpfit, body fit, GAP, mantentze gimnasia, hipopresiboak, yoga, yoga-mindfulness, gaztetxo nahiz helduentzako eskalada, gimnasioa... Aurreko ikasturtean ikastaroren batean parte hartu zutenek izen emateko lehentasuna izango dute irailaren 9ra arte. Irailaren 10etik aurrera, gainerakoek. Bestalde, hilaren 17tik 21era ikastaroetan proba egin ahal izateko ate irekien saioak antolatutako dituzte.

■ Informazio gehiago: Kiroldegian / kirola@usurbil.eus / 943 37 24 98.

Etumeta AEK euskaltegia

2017-18 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dute Etumeta AEK euskaltegian. Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikaskuntza... Aukera zabala beraz.

■ Izen emateko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 artean eta 18:00-20:00 artean.

■ Informazio gehiago: Nagusia, 43 607 609 379 usurbil@aek.eus aek.eus muntteri.blogspot.com.es



Oinarritzko argazkilaritza digitala ikastaroa eskainiko du Ibai Arrietak. Argazkia: unsplash.com.

KzGunea

Irailaren 3az geroztik, hilabete amaierara arte zabalik izango da KzGunea goizez, 09:00-13:00 artean. Honatx asteotan eskainiko diren ikastaroak:

-Irailak 18-26, 09:00-11:00 "Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi".

-Irailak 27-28, 09:00-11:00 "Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez".

-Irailak 28, 11:00-13:00 "Sasoi ona lortu azken kirol aplikazioetan".

Informazio gehiago: 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net / kzgunea.eus

Tai Chi ikastaroa Santuenean

Urriaren 1ean abiatuko da. Saioak astelehen eta ostiraletan izango dira, 17:15-18:15 artean.

■ Izen emateko deitu telefono zenbakiotako batera: 645 720 696 (Rosarito) 675 006 445 (Maribi).

Einean Guraso Eskola

Guraso Eskolak ikastaro eskaintza zabala prestatu du aurtengorako. Izen emateak irailaren 14a baino lehen bideratu beharko dira:

Oinarritzko argazkilaritza digitala

Noiz: astean behin, 19:00-20:30. Eguna izena ematen duen gehiengoaren beharretara egokituko da.

Iraupena: urria-abendua.

Tokia: Potxoenea.

Prezioa: 90 euro (3 hilabeteak). Irakaslea eta izen ematea: Ibai Arrieta. 635 701 473, photo@ibaiarrieta.com

Oharra: kide kopuru mugatua.

Laboreak

■ Jarduerak: bolilloak, punto cruz, gantxilloa...

■ Noiz: astean behin 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea eta izen ematea: Juani 609 413 883.

Yoga

■ Jarduerak: luzaketak, arnasketak, lasaitzea...

■ Noiz: astean behin 1,5 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea eta izen ematea: Katia (636 711 514), Sebas (605 722 825)

Pintura

■ Jarduerak: oleoa, akuarela, pastela...

■ Noiz: astean behin 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea eta izen ematea: Susana (609 413 883).

Eskulanak

■ Jarduerak: teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko.

■ Noiz: astean behin 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea eta izen ematea: Susana (609 413 883).

Masajea

■ Noiz: astean behin, 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea: Sebas (605722825).

Sabel dantza/Hip hop

■ Noiz: astean behin, 1,5 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea eta izen ematea: Uarda (637 256 851).

“Arriskuak hartzearen aldekoa naiz”

UGAITZ AGIRREK ‘TXIMELETAK BIZKARREAN’ NOBELAREN GAKOAK AZALDU DIZKIGU

Nobelaren lehen orrialdeetan, estualdi batean den idazle batekin egingo dugu topo. Sara du izena. Gero deskubrituko dugu historia irakaslea ere badela. *Tximeletak bizkarrean* (Susa) liburuan, agerikoa bezain esanguratsua da ezkutukoa. Eta horrek irakurlearen jakinmina areagotuko du. Azkeneraino.

NOAUA! Adar asko dituen nobela plazaratu duzu.

Ugaitz Agirre. Bai, piezaka dator. Nobelaren hasieran, Sarak 35 urte dituela esaten da. Ezer gehiago ez.

Trama, ordea, uste baino sakonagoa da.


Hori da nobelaren misterioa. Pixkanaka joango gara Sara deskubritzen.

Ahizparen deia jaso du. Aita gaixorik duela adierazi dio eta sorterrira itzuliko da Sara. Iraganeko mamuen sorlekura.

Aitak zer edozer esan nahi diola, hori ere aipatzen dio ahizpak. Hori izango da bueltatzeko arrazoia; Sara sorterrira itzultzerantz tentatzen duena. Etxera bueltan, bere lagunekin eta Bartzelona hiriarekin nolako harremana duen deskubritzen joango gara. Kontakizuna puzzle baten moduan dago antolatuta. Eszenak zatikatuta agertzen dira, kapitulu ezberdinetan banatuta.

Esan bezala, Sara da protagonista nagusia baina ahots gehiago ere badira. Ana ahizpa, Giulia, Xavi, Diana psikiatra, ikasleak... Dena den, Sara dago nobelaren muinean. “Zu zara zu eta besteek zutaz diotena”, hala dio esaera batek. Kasu honetan ere hala da, ezta?

Hala da. Beste pertsonaien hitzek ere osatzen dute Sararen irudia. Dena den, saltoak dau-



“Iraganera begiratzen dugu, baina orainaldiko betaurrekoak ipinita”. Ugaitz Agirrek adierazi digunez, “hor dago kontakizun honen jokoa”. *Tximeletak bizkarrean* (Susa) nobelak liburu salduenen zerrendan jarraitzen du.

UGAITZ AGIRRE

“Kontakizuna puzzle baten moduan dago antolatuta.

Eszenak zatikatuta agertzen dira, kapitulu ezberdinetan banatuta”

de espazioan eta denboran. Eta beste pertsonaiekin ez du garai guztietan harreman berbera izango. Harremanak sortzen, eraldatzen edota puskatzen

doaz. Kasu honetan ere halaxe da, baina matiz asko egin daitezke.

Iraganaren zama

Gatazka pertsonal guztiak ez dira igualak, pertsona guztiak igualak ez diren bezalaxe. Aurrrera egiteko, iraganeko atea ondo ixten asmatu behar dela esaten da. Iragana nola kudeatu, ordea. Hor dago koxka.

Nola kudeatu, orainalditik. Nobelaren jokoa hor dago. Ira-

ganera begiratzen dugu, baina orainaldiko betaurrekoak ipinita. Sara Boloniara joango da konferentzia bat eskaintzera. Bere unibertsitateko mutil-lagunari buruz ari denean, antzeko zerbait dio: “hainbeste maite nuen, zoriontsu izatea ahaztu nuela”. Bere garaian ordea, ez zen horretaz jabetzen. 35 urterekin iritsiko da ondorio horretara. Iraganeko pasarte batek gehiago eragin zaitzake gerora. Konplexua da gaia.

Emakumezko pertsonaia baten larruan

NOAUA! Pertsonaia bat erakitzea ez da lan erraza izango. Nobela honetan, emakumezko bat da protagonista. Bere izaera, bere identitatea, sexua bizitzeko modua... Hori dena irudikatzea izan al da idazketa prozesuko erronka handiena?

Ugaitz Agirre. Ni baino zaharra goa da gainera; nik ezagutu ez

nuen garai batekoa; kataluniarra... Lagun batek esan zidan, hobe dakizunari buruz idazten baduzu. Baina erronka hor dago, ezta? Ez dakizun hori deskubritu eta ea ezer egin daitekeen horrekin. Arriskuak hartzearen aldekoa naiz. Kale egiten badugu, ba kale egingo dugu. Dena den, idazterakoan behintzat, ez dut horrelako

kezkarik izan.

Emakumearen rola argi ze-nuen hasieratik.

Hasieratik. Hori zen erronka: nola planteatu emakumezko pertsonaia. Gainontzekoak ere, emakumezkoak dira gehienak. Sara da pertsonaia nagusia baina besteak ere eraldatzen joango dira.

“Denak ez du konbentzionala edo koherentea izan behar. Pertsonak askotan gara inkoherenteak”

NOAUA! Beste ahots batzuk entzuten ditu Sarak. Buruko gaixotasuna duela esan daiteke, nahiz eta ez den inongo momentutan horrelakorik adierazten.

Ugaitz Agirre. Fantasiatzko generoa gustatzen zait. Akaso zailagoa da jendearengana iristea, baina fantasiatzko estiloan sentitzen naiz eroso. Batek esan zidan nobelaren lehen zatia oso kontserbadorea dela eta bigarreragoa “oso ni” dela.


Non topatu duzu eromenaz idazteko inspirazio iturria?

Erotasunarekiko ideia erromantiko bat dut akaso, baina deigarria egiten zait. Denak ez du konbentzionala edo koherentea izan behar. Pertsonak askotan gara inkoherenteak; “hau esan dut baina beste hau egingo dut”. Nahiz eta fantasiatzko kontuak izan, nork ez ditu bere buruan horrelako zalantzak edo gorabeherak izan.

Historia irakaslea da Sara. Historia ikasi zenuen zuk eta historia garaikideko pasarteak jaso dituzu nobelan. Hain hurbil eta hain urrun geratzen zaizkigun erreferentzia batzuk batu dituzu.

XX. mendeko historia modu laburtuan agertzen da: mundu gerrak, 68ko iraultza, 80ko hamarkada... Historiako pasarteak oso puntualak dira baina Sararen bizitza ulertzeko adierazgarri direla esan daiteke.

Asmo hau ere banuen: historia ikasi ez duen bati historia ikasketak egitea zer den azaltzea. Historia ikastea ez dela soilik liburuak irakurtzea. Ikerketarekin eta pentsamenduarekin lotuta dago. Eta bestetik, mundu akademikoaz dudatan pertzepzioa ere azaldu nahi nuen.



“Historia-pasarteak oso puntualak dira; Sararen bizitza ulertzeko garaian adierazgarri direnak”.

UGAITZ AGIRRE

“Erotasunarekiko ideia erromantiko bat dut akaso, baina deigarria egiten zait erokeria”

Airean, kezka unibertsal bat ageri da: zoriontasunaren bilaketa. Atal baten amaieran, John Lennonen aipu hau erantsi duzu: Happiness is inside you, not with another person.

Sara okerren dagoen momentuan agertuko da. Kanean, graffiti batean irakurriko du hori. Une oro pasako du zoriontasunaren bila. Horretan ere, paralelismo bat egin daite-

ke XX. mendeko historiarekin. XIX. mendea suntsipenaren preludio luze bat izan zen eta XX. mendean suntsitzea izan zen nagusi. Suntsitze giro horretan, zoriontasuna bilatzeko mugimenduak ere eman ziren. 68ko udaberrian edota 80ko punk mugimenduan. Badaude horrelako pintzelada gehiago, koherentzia bat dutenak liburuko koadro osoan.

Collage estiloan

Nobela hau koadro bat balitz, collage estilokoa dela esango genuke. Kontakizuna ez da lineala.

Bai, eta intentzionaliki egina

dago. Salto asko daude. Baina fikzioan, serietan edo filmetan, maiz ematen dira eszena arteko saltoak. Koherenteak direnak.

“Puzzlea metafora bat da, Xavi. Baina puzzlea amaitu nahi badut, gauza bera egin behar dut zurekin”. Puzzlea aipatzen da maiz liburuan. Irakurleak ere antzeko ariketa egin beharko du. Horretan datza nobela honen irakurketaren mekanika, ezta?

Irakurleak lortuko du puzzlea osatzea. Baina horren atzean badago hausnarketa moduko bat. Puzzlea halabeharrez osatu behar al da? Hasitakoa bukatu egin behar da eta ez baduzu bukatzen frakasatu egin duzu. Eta alperrik zabil-tza. Behin frakasatzen baduzu, tira, baina bitan eginez gero... Gizartean sustraituta dagoen ideia da hori. Eta puzzlea osatzera behartuta ikusten duzu zure burua. Baina halabeharrez bukatu behar al da puzzlea? Eta osatu gabe utzi nahi badut? Ezin da zerbait erdizka utzi? Puzzlearenak joko asko ematen du eta gakoa da kontakizunean.

“Nobela honetan fantasiarik bada, hurrengoan gehixeago egongo da”

NOAUA! “Derrepentean, malleta hartu eta betetzen hasi da. Gauza gutxi: apalategiko liburu garrantzitsuak, egunerokoa, idazten hasi berri den koaderno eta arropa eroso”. Eta zuk, idazten hasi berri duzun koadernorik ba al duzu eskuartean?

Ugaitz Agirre. Bai, baina bost urteko epea ipini diot nire buruari. Nobela honetan fantasiarik bada, hurrengoan akaso

gehixeago egongo da. Utopiaz eta distopiaz idazteko asmoa dut. Pertsonaia gehiago egongo dira eta mundu berri bat asmatu beharko dut.

Tximeletak bizkarrean anbiziotsua dela zioen DVko kritikariak, ba hurrengoak ere bide beretik joko duela uste dut. Ideiak baditugu baina aurretik beste hainbat gauza ditugu egiteko. Beraz, lasai hartuko dut. Idazten ja-

rraituko dudala, hori oso argi daukat.

Poesia ere idatzi izan duzu. Libururen batean batuko al dituzu inoiz?

Poemak baditut. Liburu bat osatzeko ordea... Koherentzia bat eman beharko litzaioke bilduma osoari eta hortxe nabil, batzuetan gogo gehiagorekin, besteetan gogo gutxiagorekin. Aukera bat izan daiteke.

Akelarre Aginagako jaietan

SARRERAK LARUNBAT HONETAN JARRIKO DITUZTE SALGAI, 12 EUROTAN

Kontzertu kopuru zehatz bat eskaintzeko itzuli ziren oholta gainera. Euskal Herriko toki zehatzetan emanaldi sorta eskainita, agurtzera doaz berriz. Badoaz. Zaletuak azken aldiz gozarazteko, Aginaga hautatu dute. Akelarre musika taldea entzun eta ikusteko azken aukera Aginagan izango duzue, datozen San Praixkue-tan, urriko lehen larunbatean. Hala iragarri du musika taldeak sare sozialen bidez. “Azken data urriak 6! Akelarre azkeneko aldiz ikusteko aukera Aginako jaietan izango duzue. Animatu zaitezte eta sartu gurekin Akelarre!” lu-zatu dute gonbita.

Adi, sarrerak larunbat honetan bertan hasiko dira saltzen, irailaren 8an honenbestez, Aginagako Eliza Zaharrean, 12 eurotan. Norberak gehienez 10 sarrera erosi ahalko ditu. Saltzen ez diren sarrerak, kontzertu egunean bertan jarriko dira eskuragarri.

Akelarre kontzertua eskainiko duen gauean, musikari gehiago ere badatoz San Praixkue-tara. Sarrera beharko duen kontzertu bakarra Akelarrena izango da ordea, gaine-



Irailaren 8an jarriko dituzte sarrerak salgai Aginagako Eliza Zaharrean. Erosle bakoitzak gehienez 10 sarrera erosi ahal izango ditu. Argazkia: Urola Kostako Hitzia.

AKELARRE AGINAGAN

“Urriaren 6an arituko dira Aginagako frontoian. Birako azken emanaldia izango dela iragarri du taldeak”

rako musika hitzordu guztiak doakoak izango dira. Honatx xehetasunak:

Akelarre Aginagan

Irailak 8, larunbata:

- 16:00 Tabernaren irekiera.
- 19:00 Txartelak saltzen hasiko dira. Prezioa: 12 euro. Buruko gehienez 10 sarrera erosi ahalko dira. Irailaren 8an saltzen ez diren sarrerak kontzertu egunean bertan salduko dira.
- Tokia: Aginagako Eliza Zaharra.

Urriak 6, larunbata:

- 19:00 Elektropapo Elektrotxaranga (bokatak salgai txosnan).
- 22:00 Dj Bull + Akelarre. Sarrera: 12 euro.
- 02:00 Gozategi. Irekia, doan.
- 04:00 Goizaldera arte, Dj Bull eta DJ Elepunto Eliza Zaharrean eta Karpan.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Usurbildarrak, Kontxako Ikurriña eskuratzeko lehen postuetan

Lehen jardunaldian lehiatu ziren usurbildarrak pozik egoteko moduan dira. Goiko postuetan sailkatu ziren. Emakumezkoen txapelketan, Sarai Lizaso eta San Juan izan ziren garaileak. Nagore Arrutik eta Donostiarrak seigarren amaitu zuten. Gizonezkoetan, Alex Udabe eta Hondarribia biga-

ren. Eta bosgarren postuan sailkatu ziren Josu Ostolaza, Jon Agirrezabala eta Odei Arri-zabalaga Orioko ontziarekin.

Igande honetan argituko da Kontxako Ikurriña nork etxeratuko duen. Irailaren 9an goizeko 11:00etan hasita, Donostiako estropaden bigarren eta azken jardunaldia. Gogoan

izan, hiriburura joateko tren zerbitzu bereziak antolatu ditu Euskotrenek. Orduotan igaroko da trena Usurbilgo geltokitik Donostiarantz: 8:24, 9:24, 9:36, 9:54, 10:24, 10:36, 10:54, 11:24, 11:36.

Euskal jaietara

Zarauzko Euskal Jaietarako

ere tren zerbitzu bereziak izango dira gauez (irailaren 9tik 10erako gauean). Zarautzetik Usurbila, orduero eta 4an, 23:38-06:38 artean. Usurbildik Zarautzera, orduero 23:04-06:04 artean. Informazio gehiagorako: 944 333 333 euskotren.eus

Masusta zaletuen gaualdia

Masusta eta haren pro-pietateak goraipatzen dituen kofradia ostiral honetan, irailaren 7an bilduko da 21:00etan Artzabal jatetxean egingo duten kantu afarian.

2007. urteaz geroztik, bost lagunek bilgunea sortu zutenetik, urtero egiten duen moduan, produktu honekin sukaldaturiko afaria dastatu, ereserkia abestu eta iaz hautatu zuten kofradekideak zin egingo du, 2019ko kide berria nor izango den iragartzearekin batera.

Izena eman behar alde z aurretik

Edonorentzat irekia den afari-tarako izena aurrez eman beharko da Artzabalen bertan.



Ostiral honetan batuko dira Artzabal jatetxean.

Omenaldia Iruin sagardotegikoei



Irailaren lehenean Donostian ospatu zuten hiriburuko 33. Sagardo Egunaren baitan, Iruin sagardotegiko familia omendu zuten: Juan Inazio Astiazaran, Isabel Diazena eta Ion eta Mikel semeak. Eginiko lanaren merezitako aitortza jaso zuten. Zorionak!

Mendea bete du

100 urte bete ditu, Usurbilgo Udalak ateratako ondoko irudian ageri den Rosario Trenado Pinto herritarrak. Xabier Arregi alkatea eta Jone Urdanpilleta zinegotzia berarekin bildu ziren, “ondo merezitako oparia emateko! Bejondeizula, Rosario! Zorionak!”.



Rosario Trenado Pinto herritarrak 100 urte bete ditu. Irudia: Udala.

Euskara ikastea, apustu segurua



Euskaltegietakiko ikasleak, apunte artean, ikasturte amaierako azterketarako prestatzen. Argazkia: Buruntzaldeko Udalak.

Ikasleek gustura amaitu dute ikastaroa: "kalean ikasitakoa osatu dugu ikasgela"

Baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxieneko asistentzia bete behar da, eta errolatuta egon behar da herrian bertan. Langabetuei are laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 664 euro arteko mugapean.

Horrez gainera, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ere laguntzak ematen ditu. 2018. urtean 1.800.000 euro emango ditu, eskatzaileen artean banatzeko. Ondokoak dira baldintzak: batetik, 2017ko martxoaren 17tik 2018ko abuztuaren 31ra euskaltegi edo euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon beharko da; bestetik, 2017/2018 ikasturtean HABEren maila bat edo baliokideren bat egiaztatu beharko da. Diru laguntza horiek egiteko eskabidea 2018ko irailetik aurrera egin daiteke.

Ikasleak

Ikasle ugari animatu dituzte laguntzek euskaltegietan izena ematera. Baina beste motibazio ugari ere badituzte ikasle horiek: lana bilatzea, galdutako hizkuntza berreskuratzea, jakin-mina...

Esaterako, Edurne Arnaiz aurten ere animatu da euskaltegira. "Niregatik apuntatu

nintzen; euskara ikasi nahi dut, Euskal Herrian bizi naizelako". Badaki baliagarria izango zaiola lana bilatzerako orduan, administrazio publikoan, adibidez.

Gainera, hasieran uste zuenaren kontra, ez du uste hizkuntza zaila denik. "Ulertzeko ez da batere zaila. Hitz egitea kostatzen da, beste hizkuntzetan bezala".

Ez da zailagoa

Maialen Heras, berriz, hirugarren profilerako azterketa prestatzen ari da. Euskaraz badaki, euskaldun zaharra da, baina euskararen gaitasun agiria behar du lanerako. "Bai, euskaltegian asko ikasten da, baina nik hobetzeko gehiago irakurri beharko nuke". Haren ustez, euskara ez da beste hizkuntzak baino zailagoa. Ingelesarekin alderatu du. "Niri ingelera egiten zait zailagoa".

Ekaina bukaera izaten da azterketa garaia, eta uda iritsi ahala hasten dira ikasleak ikasitakoa errepasatzen. Almudena Carvajal da horietako bat. "Betidanik izan dut ikasteko gogoia. Txikitan zerbait ikasi nuen, baina sakondu nahi dut". Helburu bikoitza du: batetik, txikitan ikasitakoa berreskuratzea. Baina oposaketak prestatzen ari da, eta, horrenbestez, ongi etortzen zaio euskararen ziurtagiria eskuratzea. Sonia Garcia harekin ibili da euskaltegian: "Oso gustura ikasi dugu, primeran moldatzen gara irakaslearekin. Kalean ikasten duguna osatzen dugu euskaltegian".

Buruntzaldeko udal diru laguntzak

Andoain

■ Baldintzak:

Andoainen errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

■ Diru laguntza:

Matrikularen %85 guztiei; familia ugarikoak edo diru sarrera murriztuak dutenei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664 euroko muga.

Astigarraga

■ Baldintzak:

Astigarragan errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

■ Diru laguntza:

Kasu guztietan 600 euroko muga izango du laguntzak. Matrikularen %75. Langa-betuei, merkatariei eta 12 urtetik beherako haurren bat dutenei: %100.

Hernani

■ Baldintzak:

Hernanin errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

■ Diru laguntza:

Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga.

Lasarte-Oria

■ Baldintzak:

Lasarte-Orian errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

■ Diru laguntza:

Matrikularen %85.

Urniet

■ Baldintzak:

Urnietan errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.

■ Diru laguntza:

Langabeei, %80. Besteei, %50. 500 euroko muga.

Usurbil

■ Baldintzak:

Usurbilen errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.

■ Diru laguntza:

Guztiei, matrikularen %100. 600 euroko muga.

**Buruntzaldeako udalek %75-%100
artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!**

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**
dena irabazteko,
ezer ez galtzeko!



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@ae.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Munterri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@ae.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@ae.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896

URNIETA

Urrietako AEK
Euskaltegia
Errekalde kalea, 1

Zubietako jaiak



Urdaigako jaiak

Argazkiak: Ainhoa Segurola Albisu



Urdaigako jaiak**Argazkiak: Ainhoa Segurola Albisu****Atxegaldeko jaiak**

Erraustegia gelditzeko ikasturte erabakigarri honetako lehen hitzorduak asteotan



Igande honetarako giza katea deitu dute: 11:30ean Kontxa hondartzan.

IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA ZUBIETAN

**“Bestelako Euskal Herria amesten dugun herritar eta herri mugimenduen topalekua izango da”.
Irailaren 21etik 23ra
egingo da**

gimenduen eta erakundeen arteko harremanak, eraso matxistak gure espazioetan, alternatibak ezagutzen eta saretzen, lurraldearen burujabetza...

“Bestelako Euskal Herria amesten dugun herritar eta herri mugimenduen topalekua izango da”, iragarri dute antolatzaileak. Bizipozenaren isla,

ongi bizitzeko errepublikarantz pausoa emateko espazioa izango da. “Bizitza erdigunean jarriko dugu: eremu antipatriarkala izango da, antikapitalista, komunitarioa, autoeratu eta autokritikoa, borrokalaria eta alaia”, iragarri dute antolatzaileak.

Alternatiben alde

Azkenik, “Alda dezagun sistema, ez klima!” aldarripean ekainaren 9an Parisen abiatu eta urriaren 6tan Baionan amaituko den “Tour Alternatiba” bizikleta martxa Donostiara helduko da urriaren 5ean. Erraustegia gertatzeko hainbat ekimen deitu dira egun horretarako Gipuzkoako hiriburuan.

Hitzorduak

Irailak 9, igandea

11:30 Giza katea Donostiako Alderdi Ederretik Kontxa hondartzara jaisteko tokitik abiatuta.

Irailak 21-23

■ Iraultza Txikien Kanpaldia Zubietan.

Irailak 23

16:00 Erraustegira martxa Zubietatik.

Urriak 5, ostirala

18:00 “Tour Alternatiba” bizikleta martxa Donostian. Informazio gehiago: <https://tour.alternatiba.eu>

Etorkizunerako hondakinen kudeaketa plana

Gipuzkoako Foru Aldundia 2019-2030 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Orokorra izapidetzen hasi da. Plan hau onartzeko foru arauaren aurreproiektua onartu eta

jendaurrean ikusgai jarria du Aldundiak. Alegazioak aurkezteko irailaren 25era arteko epea dago.

Deliberazio prozesua


Horrekin batera, “partaide-

tzazko deliberazio prozesua” abiatzea erabaki du. Abuztuaren 31ra arteko epea finkatu zuen izen emateko. Xehetasun gehiago, uztailaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dituzue.

Makrokartzelarik ez Zubietan

Hamakarda batetik gorako jira biren ostean, Zubietan makrokartzelarik ez dela eraikiko zabaldu zuten abuztu hasieran. Martutenekoa ixteko asmoak bere horretan jarraitzen du, baina Zubietan ez da makrokartzelarik eraikiko. Horren ordez, Martutenen diren hirugarren graduan diren presoentzako gizarteratze zentro bat eraikitze asmoa dago, egun erraustegia eraikitzen ari diren eremutik ehunka metro gutxira.

Itxura denez, bertan behera geratu da, 2005ean Donostiako Udalak eta orduko Espainiako Espetxe Erakunde Zuzendaritzak makrokartzela eraikitze adosturiko hitzarmena eta proiektua.



Donostiako Udalak Loiolako militarren kuartela Zubietako Eskuzaitzetara lekuz aldatzea proposatu berri du.

Makrokartzelaren ordez, militarren kuartela

Zubietan makrokartzelarik ez dela eraikiko zabaldu eta hilabetera, aste hasieran za-

baldu zenez, egun Loiolan kokatua dagoen militarren kuartela Zubietako Eskuzaitzetara lekuz aldatzea proposatu asmo zion Donostiako

Udalak Espainiako Gobernari, Eneko Goia alkateak eta Espainiako Defentsa ministro Margarita Roblesek egitekoa zuten bilkuran.

“Herria Xutan” zikloa, Olatz, Patxi eta Xuaren egoera plazaratzeko

Usurbildik 600 kilometrora, Valentziako Picassent espetxean urrundak dituzten Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoak eta haien urte eta erdiko Xua haurtxoari elkartasuna adierazi eta bizi duten errealtatea plazaratzeko “Herria Xutan” ekimen zikloa iragarri da irailerako.

“Hemendik dei egiten dizuegu guztioi, eta bereziki gazteei, parte hartzera. Ekitaldi guztiak herritar orori zabalduak daude baina bi elkarteek dei berezia egin nahi diete herriko gazteei askok ez baitute ezagutzen oraindik, aplikatzen zaien espetxe-politikaren erruz, gure herrikideek eta beren senideek pairatzen duten egoera”, animatu dituzte.



“Motxila etorkizunez bete” erakusketa ikusgai izango da Sutegin.

Honatx iragarriak dituzten ekimenen aurrerapena. Datozen asteotan zehaztasun gehiago eskaintzen joango dira:

“Herria Xutan”

Irailak 7, ostirala

■ 22:00 “Tximeletak” dokumentalaren proiektzioa frontoian.

Irailak 15, larunbata

■ 22:30 Elkartasun jaialdia

Aginagako Eliza Zaharrean. Taldeak: Hartzaka, Artobixar, Pabloven zakurrak eta DJ Seymar. Sarrerak Aitzagan salgai, 3 eurotan. Azken eguna: irailak 14.

Irailak 17-22

■ “Motxila etorkizunez bete” erakusketa Sutegin.

Irailak 20, osteguna

■ 19:00 Mahai-ingurua, Sutegiko auditoriumean. Hizlariak: “Motxiladun” gazte bat, abokatu bat eta Sara Majarenas preso ohia.

Irailak 28, ostirala

■ 20:00 Azken ostiraleko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Antolatzaileak: Usurbilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo gazteak.

Pasaiaiko kea Usurbileraino

Ondoko irudia herritar batek helarazi zigun abuztuaren 2an. Ke laino bat ageri da zeruan. Pasaia aldetik zetoarren, bai kea baita albistea ere. Pasaiaiko portuan pilatuta zegoen txatar muino batek su hartu zuen. Irudi ikusgarriak utzi zituen. Pasaia aldeko herritarren artean kezka eta haserrea eragin zuen sute hark eragindako ke zutabe ikusgarria Usurbil pareraino heldu zen.



Pasaian piztu zen suaren kea gure mugetaraino iritsi zen.

“Ez etsi, Ucin-i hortzak erakutsi”



Uztailaren 20an elkarretaratzea egin zuten Mikel Laboa plazan.

Adierazpena

“Urteak daramatzagu UCINek atmosferara isurtzen duen ke kutsatuaren ondorio larriak jasaten. 2004ean jaso zituen Udalak herritarren lehen kezak. Geroztik, hamalau urte luze pasatu dira, eta herritarrok aurkeztutako kexa kopurua izugarria da. Nahikoa da. Nazka, nazka eginak gaude. UCINek oso garbi dauka bere helburua: negozioa, negozioa eta negozioa. Eta horretarako ez dauka inongo erreparorik, tartean herritarren osasuna jokoan badago ere, berak negozioa lehenesten du.

Udala ere nahi duen erantortiatzen du UCINek. Aurrena labe zaharra zen arazoa, gero labe berria egin eta zepak zirela arazoaren iturri, zepentzako biltegia egin eta arazoa

konpondu ezin halere, gero, ezkutuan labe zaharra berrirerabiltzen ari zirela jakin genuen, ikusten duzuen bezala ziria hemendik eta gezurra handik. Udalak ikuskapenak egiteko eskuduntza eta horretarako protokolo zehatza idatzita eduki arren, gero... beti dago gero bat hori behar bezala ez gauzatzeko. Enpresa honen hitza jatea etengabea izan da urte hauetan. Udaletxean dagoen dokumentu pila da horren lekuko, edo, herriko NOAUA!ren hemeroteka begiratu besterik ez dago.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, berea duen papeira betetzen du: ingurumena babesteko itxura plantak egin txostenetan, eta gero praktikan, aukera duen guztietan,

beste aldera begiratu, enpresarioa ez kaltetzeko. 2010ean enpresari eman zion Ingurumen Baimeneko txostenean jasotzen duena, gero, ez du UCINek betetzen, baina Ingurumen Saileko teknikariak beti oso lanpetuta daudenez, ikuskapenik ez dute egiten, ez zaie isurketei inongo jarraipenik egiten. Udal ingurumen teknikariaren 2012ko txosten batean jasota dagoenez, ordurako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko teknikariak nekatuta zeuden udaletik egiten zitzaizkien eskariei erantzuteaz. Legeak kutsatzea baimentzen duenez, herritarren kexei erantzun hori ematen zaie: enpresaren jarduerak eragiten dituen isuriak legearen barruan daudela, be-

raz kutsatzen jarrai dezakeela muga horiek gainditzen ez dituen bitartean. Hori da bere jokabidea ia gai guztietan. Ondo dakigu bai, bestela ikusi nola jokatzeko ari den Zubietan gainean eraikitzen ari diren errauste plantarekin.

Gure pazientziak lepo egin du, eta ez ditugu tarteka-tarteka egiten diren hitz onez beteriko asmo eta promesak sinesten. Marra gorri guztiak aspaldi gainditu zituen UCINek eta aurrez aurre izango gaitu hemendik aurrera, baldin eta, herritarrok aurka egotetik aurka aritzera jauzia emateko prest bagaude. Horregatik diogu, Ez etsi, UCIN-i hortzak erakutsi.

Errausketarik Ez, Ez Zubietan, Ez UCINen, Ez inon”.

Keak irentsita

Sarritan sufritu behar izaten dute herritarrek Ucin lantegitik datorren ke kutsakor eta usain txarra. Uneotako bat, gai honengatik plazara protesta egitera atera bezperan gertatu zen, uzta-laren 19an. Keak enpresa inguruak soilik ez, Atxegalde eta herri sarrera inguruak irentsi zituen, herritar batek atera eta sare sozialetan zabaldutako ondoko argazkian ikus daitekeenez.

Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, “ke latza eta izugarria atera zen Ucin lantegitik. Xabier Arregi alkattea eta udaltzainak berehala bertaratu ziren lantegira zer gertatzen ari zen jakiteko. Ucineko arduradunak azaldu zutenez, labetik ateratako zepa-edukiontzi bat irauli egin zen eta horrek, oxigenoarekin kontaktuan, izugarritzko kea sorrarazi zuen”.

Gertakari honen ostean, “udal-teknikariak txostena osatzen ari dira, eta Udalak



Uztailaren 19an, keak Atxegalde eta herri sarrera inguruak irentsi zituen.

ISURKETAK

“Udan ke isurketak ez dira eten. Abuztuaren amaieran ere kexuak izan dira”

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera eta Ucinera ingorri-

ko du, beharrezko erantzukizunak eta neurri zuzentzaileak eskatzeko”.

Hobekuntzetarako udal baimenak

Gertakariok izan ziren egunetan, Ucin lantegian hainbat hobekuntza egiteko baimenak ematea onartu zuen Udaleko

Tokiko Gobernu Batzarrak. Batetik, “labe zaharreko ke isurketak behar bezala jaso ahal izateko, estalkiaren zati bat altxatzeko eta mantenu labearen kanpai berria, tximini berria eta filtro berriak jartzeko” eta baita, “aluminiozko txatarra estaltzeko bildegia eraikitzeko”.

GuraSOS Bruselan

Europara joana da egunotan GuraSOS. Gogoan izan, uda aurretik, Zubietako erraustegiaren kolapsoa ekar dezaketen hainbat ekimen juridiko aurkeztu zituen guraso taldeak Europan. Egunotan berri eman dutenez, “Europako Batzordeak jakinarazi digu gure kexa ikertzen ari dela eta ikerketaren emaitzen berri emango duela ahalik eta lasterren”.

GuraSOSetik ohartarazi dutenez, Europan erabaki-

takoak erraustegiaren “kontratuaren etetea ekar dezake. Gipuzkoako erraustegiaren etorkizuna Europan esku ere badago momentu hauetan! Oraindik ez dago erabakia eta ez da atzera bueltarik gabeko kontua. Etorkizuna idazteke dago eta herritarren esku!”.

Iruzur salaketa

Testuinguru honetan, Europara joatekoa zen GuraSOS irailaren 4an eta 5ean; Bruselara, ohar bidez iragarri dutenez, “hainbat eragile sozio-eko-

nomiko eta parlamentariekin elkartzeko, besteak beste”.

Erraustegiaren iruzur finantzieroa; diru publikoaren zarrastalkeria eta gabezia demokratikoa; gai honetan egon den informazio, eztabaida eta parte hartze eza salatzeraz joan da GuraSOS Bruselara.

Euskal Herritik kanpora egiten duen bigarren bidaia da honakoa. Iazko uztailean, Espainiako Senatuan izan ziren, erraustegiaren proiektuak zorpetzearen eta gastu publikoaren gainera Europako zein



GuraSOSen esanetan, Europan erabakitakoak erraustegiaren kontratuaren etetea ekar dezake.

Espainiako arautegia ez duela betetzen salatzen. Gai honetan ziotenez, “Europak izango du azken hitza”. Hara joanak dira egunotan.

Gaztetxoen futbol festa abian da

Asteburuan abiatu zen, eta dagoeneko 3. jardunaldiaren atarian da Usurbil Cup txapelketa. Irailaren 22ko finalen egun handira arte, asteburueta eta asteazkenero jokatu dira lagun giroko haur eta gaztetxoen arteko neurketak Haranen. Honatx Usurbil F.T.-k egunotarako iragarri dituenak:

3. jardunaldia

Irailak 7 ostirala, Haranen:

Minibenjaminak

17:00 Trumoi-Prest

17:00 Suziriak-N.I.

17:25 Prest-Arrospide Banaketak

17:35 Otar Goxo-Incoman

17:50 Arrospide Banaketak-

Trumoi



Irailaren 22an jokatu dira finalak. Asteburueta eta asteazkenero, neurketak Haranen.

LH 3-4

17:00 Kaffa-Atallu Autoak

17:50 Gerlariak-Itzira

18:40 Zonbiak-Txirinbolo

LH 4-5 neskak

17:00 Ivan Perez-Txalaka

17:50 Itzira Eraikuntzak-

Aratz Erreategia

Irailak 8, larunbata

LH 5-6 mutilak

10:00 Aizpurua Okindegia-

Suzko Taldea

10:50 Futbolari Basatiak-Mur

LH6- Infantil neskak

10:00 Goieko-Bertako Igogailuak

10:50 Maiur-Marije

11:40 Txiriboga-Aitzaga

Infantil mutilak

10:00 Laurok-Artzabal

10:50 Zeta Skuad-Goieko

11:40 Perkuak-Zakilixut

Atsedena: Opil Goxo (LH 5-6 mutilak), Climalat (LH 4-5 neskak)

4. jardunaldia

Irailak 12 asteazkena, Haranen:

LH 3-4

16:30 Gerlariak-Kaffa

17:20 Atallu Autoak-Txirinbolo

18:10 Itzira-Zonbiak

LH 4-5 neskak

19:00 Ivan Perez-Aratz Erreategia

19:50 Txalaka-Climalat

LH 5-6 mutilak

16:30 Opil Goxo-Suzko Taldea

17:20 Aizpurua Okindegia-Mur

LH 6 Infantil neskak

18:10 Txiriboga-Maiur

19:00 Bertako Igogailuak-Aitzaga

19:50 Marije-Goieko

Infantil mutilak

16:30 Artzabal-Perkuak

17:20 Zeta Skuad-Laurok

18:10 Zakilixut-Goieko

Atsedena: Futbolari Basatiak (LH 5-6) eta Itziar Eraikuntzak (LH 4-5 neskak)

Udala, Kiroldegiko igerileku txikia handitzear

Oiardo Kiroldegiko igerileku txikia handitu eta irisgarria izateko lanak iraila amaieran abiatzea aurreikusten du Usurbilgo Udalak. Lanok esleitzeko egin zuten lehen deialdira ez zen enpresarik aurkeztu, eta horrek hiru hilabeteko atzerapena eragin du, udan zehar egiteko asmoa baitzuen udalak. Bigarren deialdia egin du orain,

eta bi enpresa aurkeztu dira. Haietako bati, Construcciones Mariezcurrena SL enpresari esleitu dizkio lanak. Sei hilabeteko epea izango dute obrak amaitzeko. Udalak 767.642,76 euro bideratuko ditu egitasmo honetara, "2018ko aurrekontuetako inbertsiorik garrantzitsuena da", nabarmendu dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak di-

ruz lagunduko du.

Lanok amaituta, hobekuntza nabarmena izango dute igerilekuak eta azpiegiturak. "Igerileku txikia handitu egingo da eta irisgarri egin: batetik, igerilekura sartzeko koxka kendu egingo da, muga handia baita elbarritasunen bat dutenentzat, eta igerileku handiaren maila berean jarriko da; eta, beste-

tik, kiroldegiko sarrerari zati bat kenduta, handitu egingo da nabarmen. Halaber, lan horiek baliatuko dira, ikusten ez den eta igerilekuaren azpian dauden instalakuntza guztiak berritzeko (hodiak, galdarak, berogailuak...). Premia handia dute horretarako". Lanak hasi bitartean, irailean zehar igerilekuak zabalik jarraituko du.

Irailaren 16an, Baxurde Krossa

Irailaren 16an ospatuko da Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak antolatutako herri lasterketa ezaguna. Ehunka kirolari biltzen dituen hitzordurako izen ematea zabaldu dute jada, baina adi, helbide berrian bideratu beharko dira inskripzioak, rockthesport.com/eu/ekitaldia/xibaxurdekrossa atarian hain zuzen. Bestela, Oiardo Kiroldegira hurbilduta.



Helduen lasterketaren ondoren hasiko da haurrena.

Aurrez izen emateko epea irailaren 15era arte egongo da zabalik, 12 euroren truke. Dorsalak eta txipak lasterketa egunean bertan banatuko ditu antolakuntzak, goizeko 9:00etan hasita frontoian.

Izen ematean izango den alaketaz gain, berrikuntza gehiago; aurten ibilbide bakarra izango da aukeran, hau da, ohiko tokiak zeharkatuko dituen 10,75 kilometroko ibilbidea osatu ahal da soilik.

Lehenik haurrak, gero helduak
Hori helduen lasterketari da-

gokionean. Haurren lasterketa ere ospatuko da aurten. Baina adi, ordutegiz aldatu du antolakuntzak. Orain arte, helduen lasterketa abiatu eta berehala ospatzen zen txikiena. Aurten, eguerdiko 12:00etara atzeratu dute.

Irailak 16, igandea:

11. Baxurde Krossa

10:30 Helduen lasterketa.

12:00 Haurren lasterketa.

Tokia: Mikel Laboa plaza.

Izen ematea: irailaren 15era arte, 12 euro Oiardo Kiroldegian

edo rockthesport.com/eu/ekitaldia/xibaxurdekrossa atarian. Antolatzailea: Baxurde Txiki, Usurbilgo Triatloi Taldea.

Agur afaria Agirretxeri

Irailaren 15eko Anoetako omenaldiaren ostean, agur afaria antolatu dio Agirretxe Taldeak 21:00etan Saizar Sagardotegian. Sagardotegiko menua dastatu ahal da, 33 euroren truke. Izena aurrez eman beharko da, zenbakiotako batera deituta: 666 987 083, 627 813 385.

Arlaban-Arantzazu txangoa igandean

Urte hasieratik Gipuzkoari ematen ari diren biraren baitan, Arlaban-Arantzazu arteko seigarren etapa antolatu du Andatza M.K.T.-k igande honetarako irailaren 9rako, Leintz-Gatzaga-Arantzazu artean. Goizeko 7:30etan abiatuko dira autobusez Oiardo Kiroldegitik. Guztira, 27 kilometroko ibilbidea osatuko dute mendizaleek. Txangorako izen ematea itxita dago.

Andatza M.K.T., errelebo beharrean

8 urteren ostean, 2018rako dituzten konpromisoak beteta, egungo zuzendaritzak bere ibilbidea amaitutzat emango duela iragarri du. Mendizaleen bilgunea utziko dute. 2019rako talde berri baten beharra izango du beraz Andatza M.K.T.-k. Kide berriak lekukoa hartzera animatzen dituzte, "eta erreleborako gaur eguneko zuzendaritza taldearen laguntza izango duzue". Taldeko kideak elkarrizketatu ditugu, datorren aste-karian argitaratuko ditugu haien hitzak. Informazio gehiago: andatza.com

Tximeleta taldea

Irailan zehar asteartetan eta ostegunetan 16:45etik 17:45era gimnastika erritmikoa egingo da eta ostiraletan 16:45etik 17:45era Hip-Hop. Izen emate epea zabalik da. 943 116342
info@tximeleta.eus

Zubieta, Enrike Abril Errebote txapelketa abiatzeko prest

Igandean irailaren 9an abiatuko da Endika Abril errebote txapelketa, eta honekin, 2018-19 denboraldiko Gipuzkoako lehiaketa ofizialak.

Aurtengo edizioak Euskal Herriko lau talde lehiari jarriko ditu, Gipuzkoako Behar Zana (Villabona), Txost (Oiartzun)

eta Zubieta (Zubieta) eta Lapurdiko Luzean (Donibane Lohizune). Lehen jardunaldiko neurketetako bat Zubietan jokatu da. Etxekoak Txost taldekoen aurka neurtuko dira, igande goizeko 11:00etan hasita. Irailaren 16an ordu eta leku berean, Luzean taldekoe-

kin lehiatuko dira zubietarrak. Eta hilaren 23an, Behar Zana-ekin Villabonan.

Irailaren 23ra arte luzatuko da itzuli batekoa izango den ligaxka, eta aldaketarik ez bada, irailaren 30ean Zubietan jokatu da final handia 11:00etan.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXEBIZITZA

Salgai

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidea-ekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2-terrazza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafeakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukal-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

de handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Pisu bat alokatzen dut. 3 logela, egongela, 2 bainugela. Altxariak jarrita daude. Dena kanpo aldera, oso eguzkitsua eta garajearekin. Tel. 659 786 28

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun,

sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Errekabikale kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m2-ko lokal/garaje bat Abtegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2.

676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabikale 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kentuene jabetxan jantokirako zerbitzari bat behar da asteburuetako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interneta moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872.

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93



Zorionak Rosario!

Abuztuaren 26an zure 100. urtebetetzea ospatu zenuen! Zorionak familia osoaren partetik.



Zorionak Airea eta June! Muxu handi bana etxekoan partez. Ondo pasa!



Zorionak Araitzz!

Irailaren 1ean 4 urte beteko dituzula eta, egun polita pasa dezazula opa dizugu. Besarkada goxogoxo eta handi-handi bat etxekoan partez. Muak!!

Heriotzak

Andoni Olano Zugasti

64 urterekin hil zen uztailaren 24ean Usurbilen



Joxe Antonio Pikabea Lizarreta

74 urterekin hil zen uztailaren 27an Aginagan



Joxean Abalabide Aguirre

68 urterekin hil zen abuztuaren 15ean Usurbilen



Heriotzak

Natxo Ventosa Sanz

51 urterekin hil zen abuztuaren 19an Usurbilen



Jose Maria Soroa Berrotaran-Arsu

85 urterekin hil zen abuztuaren 27an Usurbilen



Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zaindiko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen

zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, kla-

se partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostirale-ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776
Udaltzaingoa.....	943 361 112
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215
Bake Epaitegia.....	943 372 336
Udarregi Ikastola.....	943 361 216
Haur Eskola.....	943 374 061
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077
Hastapen tailerrak.....	943 360 465
KZgunea.....	943 023 684
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321

Goardiako farmaziak

Osteguna 06 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 07 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 08 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 09 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 12 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Irailak 06 - Irailak 16

Osteguna 13 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 15 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila

07 ostirala

- **Usurbil Cup** Ikus 22. or.
- **Masusta Kofradiaren Eguna.** 21:00etan Artzabal tabernan.
- **"Herria Xutan":** "Tximeletak" dokumentala, 22:00etan Usurbilgo frontoian.

08 larunbata

- **"Sagarrondotik sagardora"** ikastaro zikloa 09:00-13:00 Potxoenean.
- **Usurbil Cup** Ikus 22. or.
- **Akelarren kontzerturako sarrerren salmenta** 12 eurotan salgai Aginagako Eliza Zaharrean.

09 igandea

- **Gipuzkoako Bira:** Arlaban-Arantzazu 7:30ean Oiardo Kirodegitik (alde zurretik eman behar zen izena).
- **Tren zerbitzu bereziak Donostiako estropadetara.**

"Sagarrondotik sagardora" ikastaroko azken saioa

Otsailaz geroztik abian izan den ikastaroko azken saioa larunbat honetarako dago iragarria, 9:00-13:00 artean Potxoenean. "Sagarraren heldutasun analisia. Etxean sagardoa egiteko hastapenak", saioa eskainiko dute Aitor Etxeandiak eta Egoitz Zapiainek.

Izen ematea eta informazio gehiago:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea, Sagarki, Bizi Sagardoa eta Usurbilgo Udala.



"Sagarraren heldutasun analisia. Etxean sagardoa egiteko hastapenak" izenburua du larunbateko saioak. Argazkia: Goiena.

"Trakamatraka" ikuskizuna haurrentzat

Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkar-
teak antolatuta, irailaren 15ean 17:00etan
Aginagako ludotekan. Birziklatutako ma-
terialekin eginiko musika instrumentue-
kin kontzertu didaktikoa eskainiko zaie
etxeko txikienei.

Atari honetan, trakamatraka.com ata-
rian jaso ditzakezue xehetasun gehia-
go. Guraso elkarte berak hilaren 22rako
Aginagako Eskola Txikiaren 5. eguna
antolatu du. Xehetasunak datorren as-
tekarian.

Datozenak

Donostia Festibala

Zubietan

Bost urtez Igeldon ospatu ostean, Zubietara lekuz aldatu zuten iaz Do-
nostia Festibalaren jai gunea. Aurten
berriz ospatuko da bi egun iraungo
duten kontzertuen asteburua hipo-
dromoan, irailaren 14ean eta 15ean.
Bi egun edo egun bakarrerako sarre-
rak donostiakutxakulturfestibala.com
atarian eskura daitezke.

Irailak 14, ostirala:

Keler gunea: 19:10 The Young Wait,
20:45 Niño de Elche, 22:50 Kase.O,
01:10 C. Tangana.

Thunder Bitch gunea: 18:30 Frank,
19:55 Cala Vento, 21:55 Mueveloreina,
00:15 Nathy Peluso.

Dabadaba gunea: 18:25 Lester y Eliza,
20:00 Betacam, 21:55 Pet Fennec, 00:00
Manci Dj, 02:00 Alvva Dj, 04:00 Telmo
Trenor DJ.

Irailak 15, larunbata:

Keler gunea: 19:10 Ane Leux, 20:45
No Age, 23:05 Pussy Riot, 01:30 Berri
Txarrak.

Thunder Bitch gunea: 18:30 Los Brac-
co, 19:55 La Luz, 21:55 La M.O.D.A.,
00:15 Riot Propaganda.

Bukowski gunea: 18:25 Pelax, 20:00 Li-
her, 21:55 Señor No, 00:00 Dj Zuaitz,
02:00 Flank Sinnatta DJ, 04:00 Blami
DJ.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA



MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665
XABIER Usurbil

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

KMDN
hizkuntzak

English courses
CONGRATULATIONS!

CAE - Irune Etxabe Larreta

Maria Rivas Alvarez

FCE - Aroa Txeburua Ugartemendia

Andoni Azkonobieta Etxabe

Andoni Arzallus Sagardia

Matrikulazio epea zabalik 14arte!

12:00-13:00 eta 18:00-20:00

www.kamdenhizkuntzak.com

Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402

GOLDWELL
ELUMEN

*i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*



mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

**HHI-EPA USURBIL
HELDUEN ESKOLA**

2018-19 MATRIKULAZIOA IREKITA

- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarte.eus
www.epalasarte.eus

IRAILAK 15

URBILFESTA

AGENDA



11.00

PUZGARRIAK
HAURRENTZAKO
ANIMAZIOA



11.00

IPUIN KONTALARIA



11.45

MAGIA
"ASIER KIDAM"



NEREA ALIAS

AURKEZLEA

♥ 18URTE

Duela 18 urte zurekin une-
ugari bizitzea erabaki genuen.
Orain hori ospatzen dugu.

Itxaroten zaitugu!



13.00

BERTSO SAIOA (UNAI
AGIRRE AITOR MENDI-
LUZE AGIN LABURU)



14.00

USURBILGO ESKU-
BALOI TALDEAREN
AURKEZPENA



15.45

EMANALDIA
"TIO TERONEN
SEMEAK"



17.15

"TXIRRI, MIRRI ETA
TXIRIBITON"



18.30

KONTZERTUA
"AMAIA ZUBIRIA"



20.00

KONTZERTUA
"SONAKAY"

Gure 18.urteurrenaren jaiaren xehetasun guztiak www.urbil.es-en kontsultatu.

Laguntzailea:



urbil.es



Benetako
UNEAK